

290. zk.

Bigarren aroa

Abenduak 1
2016

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa

Beñat Gaztelumendi
bertsolaria


3. orrialdean



Kirolak

Real Union

8. orrialdean



Euskararen Nazioarteko eguna

- 4-5 Erreportajea Euskararen Nazioarteko eguna.
- 6 Erreportajea Bilgune feminista.
- 7 Inkesta Nola ikusten duzu euskararen presentzia Irunen?
- 9 Kirolak Julio Iturreri elkarrizketa.
- 10 Erreportajea Caser Anaka.
- 11 Haurren Leihoa Irungo La Salle LH2.
- 12 Gazteen Lanak Belaskoenea LH3.
- 13 Gaztea "Luz de putas" musika taldea.
- 14 Gazte infor
- 15 Agenda



**IKASI EUSKARA
BESTELA EZ
GARA!**

Irungo zure biskopaz!

BERRI JAKINTZA

**Eskaintza bereziak
DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK**

HADE

Maila guztiak | H.A.B.E titulu ofizialak | EGA
Azterketen prestaketa (Hizkuntz eskakizunak | IVAP | IRALE)
ON-LINE ikaskuntza | Guraso taldeak.

Zorionak eta Urte Berri on!



Argazki lehiaketa

Irun atzo Irun gaur

IUA: 43086



Marisol Aguirre

Eguberrietako argiak prest Zabaltza plazan.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Erlaitz Kalea



Kale hau Nafarro hiribidea ezkerraldeetik eta San Pedro kalearekin lotzen duena da. 1965ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran jarri zuten Erlaitz kalea izena Martin Aranbururen proposamenez.

Izen hau jarri zitzaion inguruan irundar mendiaren omenez, bertatik ikuspegi ederra baitago eta tontorrean kokatzen da gainera Alfontso XIII. a erregek 1920ko irailaren 29an bisitatu zuen gotorlekua, zulatzaile taldea egiten ari zen obra ikuskatzeko. 1928an armadak Udalarari eman zion mendira zihoan bide militarra, baita Soroeta baserria ere, mendi hori zaintzeaz arduratzen zen pioiaren etxebizitza zena.

1936ko abuztuaren 15ean Francoren tropek posizio estrategiko hori hartu zuten, bertatik hiria dominatzen baitzen.

Serapio Mujikak dioenez, Soroetako muga dagoen mugarriak, Erlaitzeko iturri ondoan, "Desde aquí la deserción tiene pena de la vida" inskripzioa darama eta horren arrazoia Irungo Unibertsitateak muga ondoko goarnizioko desertoreak beldurtu nahia zen, XVIII. mendeko erreboltean Frantzia aldera ihes egiten baitzuten.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena,
Unai Oiartzun eta Peli Le-
kuona.

Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

837 comunicación y
publicidad S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943-61-54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943-64-54-57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Wazozaragorria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua




Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Beñat Gaztelumendi, bertsolaria: "Hizkuntza txoke bat nabari da Irunen"

Beñat Gaztelumendi (Añorga, 1987) bertsolaria Irunera gerturatu da, EKTk eta Betti Gotik antolaturiko bertso bazkari musikatuan parte-hartzera. Bertsolari Añorgatarra 2015ean Gipuzkoako Bertsolari txapeldun bihurtu zen eta 2013an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izan zen.



Bertso bazkari musikatuak zertan datza? Lehenetakoa da?

Guk bertso saio musikatuak egiten ditugula, badira hamar urte agian. Hasieran, afal osteetan edo plazan izaten zan eta gaur bazkariarekin lotzen da. Alde batetik musikatu da, horrek ematen dio puntu informal bat saioari. Berez, musikarekin kantatuta bertsozalea ez dan jende askorentzat errazagoa da bertsoa jasotzea eta aldi berean bazkari bat egonda aurretik, puntu informal hori indartu egiten da eta guretzako pixkat jolasteko leku bat izango da.

Saioaren ezberdintasuna informaltasunean datza?

Bertsoa berez ere bada informal xamarra, baina azkenean edozein lekutara sartzen delako, bat-batean egiten delako, egokitu egiten delako inguru batera..., baino musikak bai ematen dio kontsumitzeko erraztasuna. Askotan, nola ahots hutsez aritzen garen, jende batentzako zurrun xamarra egin daiteke edo egin daiteke pixka bat hotzagoa eta musikak ematen dio beste goxotasun bat, aldi berean, batzuetan kentzen bertsoak berez daukan arnasa erritmora joate hori eta gauza batzuk bai aldatzen ditu musikarekin egiteak. Baina nik uste, esperimentatzeak beti ekartzen duela zerbait ona eta gaur ere saiatuko gara.

Zer nolako harrera izan dute saio musikatuak?

Orokorrean, nik uste, harrera ona izan dute. Egia da, lehenagotik bertso-zalea den jendea hurbildu dela gehiago, ez dugu lortu hainbeste espazio berri irekitzea. Espazio berri batzuk bai ireki ditugula, baino musika-zaleak baino gehiago dira bertso-zaleak.

Gu ere ari gara doinu berriak lantzen, hasieran oso doinu musikalak erabiltzen genituen eta orain ari gara musika bera bertso-tara ekartzen. Nik uste, oraindik esperimentazioak sakonago jotzeko baduela tarte eta horretan ari gara. Aldiro da diferentea, harrera ezberdina herri bakoitzean, baina orokorrean harrera ona.

Bertsolaria izateaz gain, kazetaria zara. Fenomeno hau bertso munduan ez da arraroa, bi diziplinek antzekotasunak daukate edo nolatan azal daiteke bien erlazioa?

Nik uste bertsoak alor teknikitik aparte, badauka bi ezauzgarri nahiko garrantzitsuak direnak. Bat da hitzekin jolasteko grina hori, horregatik filologo diren bertsolari asko daude, eta beste bat da bertsoan jakin behar duzu. Zozaz lekura zoazela identifikatu behar duzu ze jende daukazu aurrean, zeintzuk diren aurrean dituzunen kezkek. Asmatu behar dugu herri horretan zein dan momentu horretan dagoen gai nagusia.

Umorea ere egiten dugunean, beti komeni da parez parekoa edo betik gorako umorea egitea. Alegia, lehenik herrian barre egiten dioten jendea edo eroso ez dagoen jendea, horren gainean umorea egitea pertsonalki ez zait gustatzen, goitik beherako umorea delako. Beti bilatu behar duzu saioan boterea non dagoen, pixkat zirikatzen saiatu, berez eroso sentitzen den hori eta horrek badauka kazetaritza zerbait: saiatzea galderak egiten, kuriositatea edukitzen herri bakoitzean. Nik uste, hori

izaeraren parte da. Naturala da, bertsolariak kazetari batek egiten duen lan hori.

Irungo saiorako ze azterketa egin duzu?

Ez da aurretiaz egiten den lan bat. Hala ere, Irun ezagutzen dugu eta badakigu ze jende hurbiltzen den bertso saioetara. Herri berezia da Irun. Mugako herriarena, uste dut topiko bat ere badela, baina antzematen da izaeran ere eta gauza askoren muga dela uste dut Irun. Bada baxerri eta hiriarren arteko muga bat, badago jende bat baxerri inguruetan bizi zena eta gero herrira joan zena, txoke hori nabaritzen da. Hizkuntza txoke bat ere nabari da Irunen, badago jende bat euskarari oso atxikia bizi dena Irunen eta eguneroko bizitza euskaraz egiten duena eta badago beste jende bat euskaraz bizi den jendea ere imajinatu egiten ez duenik ere. Orduan, mugako herria dala uste dut zentzu askotan, niretzat interesantea da, ez da ohiko publiko bat edo. Beste herrietan publiko homogeneoagoa izaten da eta Irunen iruditzen zait denetik aurkitu litekela eta horrek ematen dio beste joko bat.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Ekitaldi oparoak eus



Irungo hamabi eragilek Azaroak 20 eta Abenduaren 10 aren bitartean, Euskararen Nazioarteko egunaren baitan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gauzatutako lehen ekitaldiak Pirritx Porrotx eta Marimototxen “Tipi-tapa korrika” emanaldia eta Bertso bazkari musikatua izan dira.

Bidasoa pintura eta dekorazioa

- ✓ Gremioen koordinazioa eta erreformak
- ✓ Lakatzea eta bernitzatzea
- ✓ Bainuontzien esmaltatzea
- ✓ Pintura orokorren



943 63 11 58
619 889 723

Facebook: pinturasbidasoairun
pinturasbidasoairun@gmail.com



ekararen egunetarako



Euskararen inguruan hamaika ekitaldi ospatuko dira Euskararen egunetan. Antolatzaile taldeak sei urte daramatza euskararen egunak antolatzen. Antolatzaileak ez dira Euskararen Nazioarteko egunera mugatzen eta zazpi egun ezberdinetarako antolatu dituzte euskara protagonista duen ekitaldiak.

Gauzaturiko lehen ekitaldien artean Betti Gottik eta ETKk antolatutako bertso bazkari musikatu aipatu behar da. Bazkaria 70 lagun gerturatu ziren eta Egoitz Zelaia, Maialen Akizu, Arkaitz Oiarzabal "Xamoa" eta Beñat Gaztelumendi bertsolarien bertso eta abestiekin bazkaldu dute. Betti Gottik antolaturiko lehen kantu bazkaria dela, azaldu du Ariane Urbieta boluntarioak: "Aurten esan genuen agian formatua aldatu behar zela, bertsoak ere gustatzen zaizkigu eta kantu kutsu hori mantendu nahian, bertso saio musikatuarena okurritu zitzaigun eta nik uste arrakasta izan duela, jendea pozik ikusten da". Bertso saio musikatuaren protagonista nagusia izan da eta arratsaldean zehar luzatu da ekitaldia.

Abenduak 1 ean, Irunabar, Irungo Bertso bilguneak, urteko azken bertso gaua ospatuko du. Oltza gainera Alaia Martin, Miren Artetxe eta Egoitz Zelaia igoko dira. Gai jartzaile lanetan Eneko Sanchez, Oinatz Mitxelena eta Zuhaitz Olazabal egongo dira. Ohi bezala, bertso gaua Kabigorri Ateneoan ospatuko da.

Euskararen eguna hizpide hartuta, Antxeta Irratiak eskualdeko euskara zinegotziak batuko ditu, abenduak

2 an, 13.00ak eta 14.00ak bitartean. Bertan, Michelle Mounios, Arantxa Berrotaran eta Josune Gómezek irratiak antolaturiko mahai inguruan parte hartuko dute.

Abenduak 3 an, Bidasoa eskubaloit taldeak euskarazko ereserki aurkeztuko du. Bidasoak eta ETK antolaturiko lehiaketaren emaitza da ereserki. Bidasoa-Benidorm partidaren (19.00) aurkeztuko da ereserki berria.

Euskararen egunetako bigarren asteburuan, igandean, EKTn 10.00ak eta 13.00ak bitartean. ETK eta AFIk antolatutako argazki rallya abiatuko da. Egun berean, 12.00ak eta 14.00ak bitartean, Kemen eta Auntxaren eskutik, San Juan plazan, dantzaldia eta erromeria egongo da.

Euskararen egunetako azken egunean, abenduak 10. Bidasoako AEK-ak Literatur beila musikatu antolatu du eta arratsaldean Txorimaloak soinu taldeak Irungo kaleak girotuko ditu batukada bidez.

Udal ekitaldiak

Irungo Udalak abenduaren lehen egunean hasiko ditu ekintzak. Donibane Lohitzunen antolatuko den mintzodromoan parte-hartzeko autobus zerbitzua eskainiko da. Egun berean, 19.30 etan, "Euskara munduan besteen ahotan" dokumentalaren emanaldia eta Iñigo Asensio egilearekin solasaldia egongo da. Emanaldia eta solasaldia Irungo Mendizaleen Elkartean ospatuko da.

Abenduak 2a mintzodromo gaztearekin hasiko da,

Mendibil merkataritza gunean 10.30-12.00ak bitartean. Arratsaldean, Irantzu Epeldek "Irun-Hondarribiko gazteak hizketan: euskalkia eta euskara estandarra, gaur. 2014" lana aurkeztuko du Amaia kultur zentroko hitzaldi aretoan. Epelder lanak 2014ko Jose Antonio Loidi beka irabazi zuen. Eguna ixteko, "Maitia non zira" dokumentala emitituko da Amaia kultur zentroko hitzaldi aretoan. Ekitaldia 20.00etan gauzatuko da eta Maite Deliaeren solasaldiak itxiko du eguna.

Euskararen nazioarteko egunean, abenduak 3, San Juan plazan, egun osoan zehar, artisa lanak eta tailerrak egongo dira. Egunean zehar Markeliñek bi antzerki antolatu ditu. Lehena, 12.00 etan, San Juan plazan Zoozoom kale antzerkia. Bigarrena, Jendartean Bidaide antzerkia, Amaia kultur zentroan emango da, arratsaldeko 20.00etan. Jardunaldiko azken ekita Jose Cruz Gurrutxagaren bakarriketak izango dira, Palace tabernan 21.30etan.

Iñaki Perurena Mondragon unibertsitatean

Bidasoako kanpuseko enpresagintza fakultatean hainbat ekintza gauzatuko dira. Euskaraz eta kirolaz hitz egiteko Iñaki Perurena gerturatuko da, abenduak 2an. Hitzaldi amaieran harri jasotze erakustaldia gauzatuko du Perurenak. Mugi Hadi ikasle elkarteak euskara eta kirolari buruzko argazki lehiaketa eta piropo lehiaketa antolatu du.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





Oihana Etxebarrieta: “Denok daukagu zer egina eta zer emana arazo honetan”

Oihana Etxebarrieta Irun eta Euskal Herri mailako bilgune feministako kidea da eta azken hauteskundeetatik EH Bilduko Legebiltzarkidea. Herri mugimendutik dator Etxebarrieta eta parlamentu barrura salto egitea, fase berri baten urratstzat hartu du. Lege biltzarrean sartu arren, hanka bat barruan mantentzea eta bestea kanpoan, militantzian, mantentzeko helburua dauka, herri mugimenduetan landurikoa parlamentura pasatzeko.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerarazteko nazioarteko egunaren baitan, politikarien aldetik, egun zehatza begiratzea eta urtean zehar “ahaztea” joera nagusia dela adierazi du Oihana Etxebarrieta. Horrexegatik, Legebiltzarretik politika zehatzak beharrezkotzat jo ditu: “Erabaki batzuk hartu behar ditugu norabide honetan urratsak hartan jarraitzeko. Ez dugu esango egoera eroso edo egoki batean gaudenik, emakumeak era-

sotzen eta erailtzen jarraitzen duten bitartean.”

Udan gertaturiko eraso sexistetaz, hedabideek hainbatetan morbo eta sentsazionalismoa baliatu dutela salatu du Oihana Etxebarrieta. Hala ere, mugimendu feministak eta hainbat kazetarik egindako lanari esker udako erasoen ikusgarritasunaren normalizazio bat eman dela adierazi du. Hedabideak berdinta-

sunak lortzeko baliagarriak direla, adierazi du Etxebarrieta: “oso garrantzitsuak dira medioak, informazio hori emateaz gain egoera hori aldatu daitekeen, egoera horren aurrean zer egin daitekeen eta kontzientziazioan”.

Hezkuntzak parekidetasunean urratsak emateko hezkidetzak eta hezkuntza metodologiak “ezinbestekotzat” jo ditu Legebiltzarkideak.

Irun genero aldetik

Betaurreko moreak jarriaz Irunek hirien mailako konplexutasunak dituela ikusten du Oihana Etxebarrieta. Aldatzeko hainbat puntu daudela azaldu du, baina azken urteetan mugimendu feminista pixkat apaldu den sentsazioa dauka: “sentsazioa daukat baduela urte batzuk eta guk geuk, Irungo bilgunetik ere dinamika askoz emankorragoak geneuzkela eta apaltze momentu bat bizitzen ari garela orain”.

Hala ere, Irun eta Hondarribiko batura eta aliantzak sustatzen ari direla nabari du Oihanak. Batura hauek esparru ezberdinetarako onuragarriak izango direlakoan dago: “elkarrekin egiteko asko daukagu

jendarte osoan ematen diren egiturazko arazoak, hiri espazioa, parte-hartzea, eraso sexistak, hezkuntzaren egoeran, komunikabideak... gauza asko ditugu aldatzeko, jaiak ere, badago zer landu”.

Asun Casasola ipuin lehiaketa

Txingudi Anti Sexista plataformak antolatutako ipuin motz lehiaketak bi urte bete ditu eta ipuin guztiak batzen dituen liburuaren plazaratzea berezitatzen jo du Oihana Etxebarrieta: “Irundar askoren kontzientzietan eta bizipenetan dago Nagore Laffaigeren erailketa, baina are gehiago esango nuke maila positiboan esan badaiteke, halako egoera latz baten aurrean dagoela Asunek berak egunerokotasunean eraman duen lan hori”.

Legebiltzarra

Legebiltzarkide gisa Oihana Etxebarrieta gauza politak egiteko esperantzatsua dago: “sentsazioa daukat badauzkagula elkarlanean puntu ezberdinak, indarkeria matxista izan daiteke bat, horretarako badaukagu lanketarako aukera”.



BAKAILAOA DASTA EZAZU



Inkesta

Nola ikusten duzu euskararen presentzia Irunen?

Beñat Martínez

Garbi dago ez dela hainbeste hitz egiten beste hiriekin konparatuta, adibidez Donostia. Bestalde, Ikastolek egiten duten lanarekin gero eta jende gehiago erabiliko du eta hobeto mantenduko da hizkuntza.

Uste dut ikastolen lanarekin nahikoa dela euskara ongi mantentzeko.



Leire Villaescusa

Nik uste dut jendeak ez duela asko hitz egiten, ez duzu kaleetan euskara entzuten. Komertziotan ezta ere. Gertatzen dena, nire ustez, jende asko ez dela hemengo eta euskara ez dela hizkuntza erraza.

Gazte gehienak badakite baina gazte-eraz hitz egitea errazagoa da. Bestalde, guraso asko ez dira hemengoak eta horregatik gaztelaniaz hitz egiten da.

Euskara sustatzeko, jendeak esfortzua egin beharko luke, eta lagunekin gehiago euskaraz hitz egin.



Maite Guirau

Probintziarekin konparatuta gutxi hitz egiten dela uste dut. Egia da, azkeneko urteetan asko hobetu dela baina probintzian gutxien mintzatzen den lekua da. Arlo horretan, Irunerok egiten duen lana, adibidez, oso ona iruditzen zait, euskara basbeste eta sustatzeko egiten diren ekimen guztiak ongi iruditzen zazkit.



Iñaki Álvarez

Dexente erabiltzen dela uste dut. Nik adina bat daukat eta nire garaiarekin konparatuta ez dauka zerikusirik. Esango nuke gaur egun hiriaren %50-ak euskaraz dakiela.

Irunen, betidanik, erdaraz askoz gehiago hitz egin da eta, horregatik, euskaldunak heziera izan dute pertsona bakarra euskara ez jakitekotan denak gazte-eraz hitz egitera pasatzea. Denak euskaldunak izatekotan euskaraz hitz egiten da normalean.



Ainhoa Martínez

Uste dut eskolan asko ikasten dela baina gero gazteek ez dute asko hitz egiten. Izan daiteke familiekin ez dutelako ikasten eta mintzatzen, lagunekin ezta ere.

Horena izango litzateke gurasoekin hitz egitea.



Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko alde)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Real Union Kostorbek harrobiaren kudeaketa salatu du



Real Union Kostorbe taldeak “oinarrizko futbolaren kudeaketa independentea” eskatzeko eta hainbat gurasori “azaroan hiru kuota” kobratu izana salatzen, Stadium Gal zelaitik, San Juan plazara “S.O.S futbol-base” pankarta jarraituz kalera irten dira hainbat jokalaria, teknikari eta guraso.

2012. urteaz geroztik, Real Union taldeko harrobia Kostorbe Real Union taldearen bitartez kudeatu da, 2016ko iraila arte. 2016-2017 denboraldian harrobiaren kudeaketa Real Union taldeko administrazio kontseiluak gauzatu du. Kudeatu beharreko taldeak lau dira. Lehena, ohorezko erregional mailako Real Unión B taldea da eta 11. postuan dago. Jubeniletan bi talde dauzka Real Uniónek: Jubenilen liga nazionalako 4. taldeko Real Unión taldea (14. postuan, jaitsiera postuetan) eta jubenilen euskal ligako Real Unión B (16. Postua, jaitsiera postuetan). Azkeneko taldea kadete mailako Real Unión da, 13. postuan dago, jaitsiera postuetan.

Administrazio kontseiluak gauzatutako kudeaketaren

aurrean Kostorbek hiru eskakizun egin ditu egoera konpontzeko: “Oinarriko futbolaren kudeaketa independentea, gastu eta diru sarrera guztiak guk kontrolatzeko; bigarrena, zelaia, futboleko jolasteko arriskutsua dago eta hirugarrena oinarriko futbola osatzen duen giza-taldearekin zorrak kitatzea”.

Real Union taldeak teknikari taldearen zorrak kitatzen diharduen arren manifestaldiko hainbat partaideren ustetan, ordainketak protestak gelditzeko helburuarekin gauzatu dira: “Orain ordaindu dute manifestazio hau gelditzeko, baina azken bileretan esandakoa kontuan hartu gabe. Garrantzizkoena gestio independentea da, ez garelako haien kudeaketaz fidatzen”

Kuota irregularrak

Real Unioneke jokalarien hainbat gurasok hilabete barrean hainbat kuota ordaindu dituzte: “Pasa dituzte urrian bi aldiz eta azaroan behin, baina egia da irailan ere ez dutela pasa. Orduan, ez dago argi. Niri hiru kuota pasa dizkidate orain arte, baina ez didate jarri ze hilabetekoak diran”. Egoera honen aurrean eragindako gurasok ez dute inolako erantzunik jaso klubaren partez.

“Lan baldintza duinak”

Harrobiko talde teknikoak “lan baldintza duinak” eskatu ditu klubaren instalazioak “egoera prekario eta arriskutsuan daudelako”. Egoerak kirolarientzako “arriskua” sortzen duela adierazi dute eta “oinarrizko taldeekiko konpromezuak ez direla bete” salatu da.

“Sorpresa eta atsekabea”

Sortutako gatazkaren harira, klubak “hartutako erabakiak klubaren sekzioko arduradunekin gauzatutako bileretan” sortu direla adierazi du. Hartutako erabakien artean, 2016-2017. denboraldiko proiektuaren gestio administratibo eta finantzarioa “bestelako” egitura batekin gauzatzea akordatu zela, adierazi du klubak.

Real Union-eko lan talde berriak hainbat administrazio lan gauzatu dituela, adierazi du administrazio kontseiluak: “kuoten kobrantza, kirol material eskaera (baloiak, sareak,...), tramitatzeko zeuden fitxen kudeaketa, arropa eskaera,... . Honen emaitzak, teknikariek azken bi urteetan akordaturako kantitateen eguneraketa, materiala iristen dago eta fitxak kudeatuak daude”.

Klubean gertaturiko zalaparta dela eta administrazio kontseiluak “gauzaturiko kaltea larria” dela adierazi du. Era berean, familiei “barkamena” eskatu die egoeragatik.



Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatianas@euskalnet.net

UDAN ERE,
ASTINDU GORPUTZA!!!

Multi-Gym, Pilates,
Sevillanak eta
latindar erritmoak

TAILERRAK:

Defentsa pertsonala,
makillajea, saltsa
eta bachata

“Kluba eta ekintzen egoera arrakastatsua da”

Julio Iturre, Irungo Mendizaleak elkarteko Lehendakaria



Julio Iturre Irungo Mendizaleak elkarteko Lehendakaria eta bazkide betetera da, duela hogeita hamar urte eman zuen izena. Irungo Mendizaleak elkartea egoera positiboan dagoela azaldu du Iturrek eta mendizale beteteraentzako irteerak sustatu nahian dabilela.

Lehendakari gisa lehen urtea pasa ondoren, zelan joan da esperientzia? Oso ondo, ekintzen egutegiarekin bete dugu eta bazkideekin kolaborazioak areagotzen ari dira. Hainbat urtez jarraitzeko motibatuta nago.

Elkartearen egoera zein da? Kluba eta ekintzen egoera arrakastatsua da. Ekintza asko dauzkagu, urtea amaitzen goaz eta datorren urterako proiektu berriak prestatzen gabilta. Nazioarteko irteerekin jarraituko dugu. Datorren urtean Kaukasora joango gara, abuztuan, Georgia eta Armenia ezagutzera. Uztailan, maila

altuagoko mendizaleentzat, Kirgistanerako bidai bat antolatu dugu. Treking gehiago egongo da eta bost mila metrotik gorako mendiak igoko dira.

Galiziako proiektuarekin ere jarraituko dugu. Urte askoko proiektua da, aurten laugarrena. Kantauriko kosta guztia jarraituz, Baiona inguruan hasi ginen eta une honetan Lugoko probintzia guztia zeharkatu dugu. Urtean zehar zati ezberdinak egiten goaz.

Negurarekin batera elurra lekua hartuz doa ekintzetan?

Bai, eski edo iraupen-eski ekintzak zehazki

klubak ez ditu antolatzen, baina klubeko bazkide asko eskiatzera joaten dira. Bestalde, datorren urteko ekintzen egutegian, martxoan, elur-erraketekin hainbat irteera gauzatuko ditugu. Bazkideentzat erakarritasun handiko ekintza da, elurretik lasaitasunez paseatzeko aukera ematen du eta.

Aurten irteera luzerik gauzatu duzue?

Aurten, Abuztuan, 73 bazkide Bulgariara joan ginen, herrialdea ezagutu eta bertako mendiak igotzera. Jendea pozik etorri zen eta uda honetarako Georgia eta Armeniako irteera proposatu dugu zuzendaritzatik. Bidai ezberdina izango da paisaiagatik eta mendien altueragatik. Irteera hau ez da hain teknikoa izango, lau mila metro gaintzen dituen mendi bat igotzen saiatuko garen arren.

Mendizaleetasunagatik ze herrialdetan murgildu zara?

Une honetan 82 herrialde inguru ezagutzen ditut eta mendizaleetasunari esker, mendi bila eta bestelako mendien bila bidaiatu dut. Argeliara mendi bila edo Birmaniara treking egiten ibilitakoa naiz, gauz ezberdinen bila.

Ze gauz ezberdin bilatzen dituzu bidaietan?

Ez dut masifikazioa gustuko, gaur egun mendia zenbait tokitan masifikatzen ari den sentsazioa daukat. Zu bakarrik mendiaren aurka sentitzea eta toki ezezagunak aurkitzea dut gustuko. Birmanian esaterako, hiru egunetako treking batean, Magan eta Inle laku artean, bertako poblaioarekin egon nintzen bakarrik eta tenplu budistetan lo egiten nuen.

Inguruko ze mendi dituzu gustuko?

Anboto eta Aitzgorri asko gustatzen zaizkit. Mendi motagatik ditut gustuko, mendi arrokatsuak ditut gustuko. Saioa mendia ere asko gustatzen zait. Jendeak Aiako Harrietako bigarren eta hirugarren mendeaz esaten duenaren antzekoa da, ez dakit ohitua nagoelako den edo baina ez zait hain konplikatu iruditzen. Hala ere, badago mendi arrokatsuak gustuko ez dituen jendea.

Ertzaintzak gauzaturiko salbamenduak ordaindu behar denetik elkarteak arazoren bat eduki du?

Ez, irteretan parte-hartzen dugun bazkide guztiak federatuak gaudete. Azken urte honetan bi erreskate eduki ditugu, baina bazkideak federatuak gaudenez ez da gaturik egon, ez klubarentzat, ez bazkideentzat.



Caser Anakak 14 urte bete ditu



ASTELEHENA 12

11etan, PINTXO TAIERRA eguneko zentroan, Eliketa eta gozaketa

6etan, Nagusilaneke JUAN CARLO-Sen AKTUAZIOA eguneko zentroan

ASTEARTEA 13

URTEBETETZEKARI MENU BEREZIA

6etan, BINGOA SARIEKIN behereko solairuan

ASTEAZKENA 14

Goizean, DONOSTIARA ATERALDIA, Guipuzkoa plazako jaiotza ikustera.

4:30etan MEZA BEREZIA aktibitate gelan

6etan, ESPAINATIK BIDAIATZEN oihuturi buruzko galder jokoa (solairuka)

OSTEGUNA 15

6etan, HILABETEKO URTEBETETZEEN OSPAKIZUNA. Aktibitate gelan

OSTIRALA 16

5:30etan MUSIKOTERAPIA KONTZERTUA ETA TXOKOLATADA TXURROEKIN.

Caser Anakak 14 urte bete ditu. Zentrutik hamalau urteetan zehar pasatako langile guztiak eskertu nahi da. Baita ere, familiakide eta egoiliarak. Bestalde, urte hauetan Auzo Elkartarekin, intituzioekin eta enprekin lan egin da. Caser Anaka zentrutik Irungo Udalaren gertutasuna eta beste instituzioen gertutasuna eskertu nahi da.

Denbora aurrera joan ahala, zentruko baliabideak hobetzen joan dira, txoko alai eta goxo bat eskaintzeko. Azken finean, bereroentzako zerbitzurik hobereena.

Además, se ha trabajado por ofrecer cada vez un mejor servicio y más completo. Por ejemplo, cuando Caser Anaka abrió sus puertas no ofrecían servicio de estancias de rehabilitación y ahora sí.

Baita ere, zerbitzu osatuagoak eskaintzeko lana gauzatu da. Esaterako, Caser Anaka ireki zenean ez zen erreabilitazio zerbitzurik eskaintzen, orain bai. 14 urtez lanean zerbitzu eta atentzio hobetuegia eskaintzeko gure bezeroei.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA




GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM





Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27
943 635259
IRUN
J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
kettysacademy@gmail.com

EGONALDIAK EEUetako famillirekin




Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

Belaskoenea LH3



Urtero bezala, ekintza asko ospatu dira gure eskolaren egunaren inguruan: Guretzab, jaiek, aske bateko iraupena izan du eta ekintza dibertigarrietan parte hartzeke aukera izan dugu denok: altxorreren bila, karaokea, krossa, antzerkiak eta ipuinak, irratsaio bereziak, lehiaketak, euskal jolasak eta dantzak, muralak... Hirugarren zikloko ikasleok, aurten, rap lehiaketa esin dugu: Gela bakoitzak bere zatia asmatu eta bere koreografia prestatu du. Hemen daukazu gela bakoitzean ateratako rap bertsoa. Rap gustukoa badaukazu, ikusi: www.belaskoenea-bezkuntza.net/web/guest/videos



BELASKOENEA 3-ZIKLOA

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo S.R.A. andereari jaso (1959ko uda)(El Bidasoa, 1959-X-17)

Konparaziyuak eta

POLLITA (Irurita)

POLLITTA (IRUN)

Arrosa baño pollitagua (Irurita)

Grabeliña biñon pollittagua (Irun)

Pinpilinpoxa biñon pollittagua (Irun)

Itsasua geldirik dagon koloria bezin pollitta (Irun)

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ezeiza munduan, Kijilak, Desde nueve metros, restapasaando La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Ezeiza munduan, Kijilak, Desde nueve metros, restapasaando La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA



restapasaando La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Ezeiza munduan, Kijilak, Desde nueve metros, restapasaando La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Ezeiza munduan, Kijilak, Desde nueve metros, restapasaando La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zabioga, Kijilak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma

Azken guda dantza



Bederatzi urteko ibilbidea egin ondoren Luz de Putas taldearen argia itzali egin da. Azken kontzertua Lakaxita gaztetxean jo du taldeak eta kontzertu aurreko bazkarian, Irunero, Mikel Tife, Diego Martinez, Ander Jimenez, Oskar Ruiz de Apodaka, Ibai Larralde, Peio Irigoien eta Alex Terrones "Terri"-rekin egon da.

Gaurko kontzertua nolako izango da?

Peio Irigoien (Trompeta jolea): Nik uste bilduko ditula hasieratik orain arte izan ditugun kantuen bilduma bat. Ondo pasatzeko kontzertua izango da, aspaldian jotzen ez genituen abesti asko joko ditugulako. Nik uste pentsatuta dagola betidanik gure inguruan egon den jendearentzat eta guretzako batez ere.

Lakaxita gaztetxean amaitzea berezia da ezta?

Ian Olaizola (taldeko lehen baxujolea): Gure etxea bezalakoa da.

Mikel Tife (ahotsa): Bigarren, hirugarren kontzertua izan zan Lakaxitan eta gure beste taldeetan gaztetxean jo izan dugu pila bat alditan. Psiclocibe ere garrantzixua da, bertan esaiatzen genuelako. Baina oso harropatuak eta oso ondo sentitu gara hor jotzen eta berez gure intenzioa zan bakarrik gaztetxean egitea azkeneko kontzertua. Baina azken momentuan psiclocibetik eskaini ziguten, beraiantzat polita izango zela bertan jotzea eta horregatik hartu genuen, beraiak eskaini zigutelako.

P.I: Eta gustora ibili ginan, kriston kontzertua izan zen.

Zuentzat zer da Luz de Putas?

P.I: Lagun arte oso polit bat. Sartu nintzen taldean, 16 urte nituela eta kendu nituen dodotiak taldearekin eta gaur egun badi-tut bederatzi lagun nirekin, beste proiektuetan ere elkarrekin gaudenak eta asko eman didate.

Ibai Larralde (Kitar jolea): Niretzat Luz de Putas izan da, baita ere, lagun arteko giro bat, eman didana benetako aukera eza-gutzeko zer den eszenatoki on batean jotzea eta gustora sentitzea, gustuko musika eginez.

Ander Jimenez (Kitar jolea): Hasieratik nago Luz de Putas-en eta neretzako izan da musika munduan, dena. Behin eman zidaten hautatzeko eskubaloia edo musika, ze musikarekin partiduak galtzen nituen eta esan zidaten hautatzeko. Pentsatu gabe esan nuen musika, Luz de Putas izan da neretzako dena. Izan da esperientzia bat ez dudana inoiz ahaztuko. Zerbait berezia izan da nire bizitzan.

Alex Terrones "Terri" (baxu jolea): Ni etorri nintzen Astigarraga aldetik eta nire bizia aldatu duen talde bat izan da, guztiz gainera. Ezagutu dut jende pila bat, hauek bezala, nik asko maite dudan jendea, nire lagunak eta bizitza aldatu dit. Orain hemen bizi naiz, familia edukiko dut hemen eta niri ekarri nau hona Luz de Putas-ek eta dena eman dit.

Diego Martinez (Tronboi jolea): Hasieran, txikitik, ikasten nuen musika, 5 urterekin hasi nintzen. Banekien zer zen musika baina taldean sartu arte, ez nuen berez gozatu zer den musika eta asko ikasi dut. Lagunekin gehiago eta nire azken hamar urteetan gertatu zaidan gauzarik honena.

M.T: Denek esan dute musikalki denoi aportatu diguna, baina horretaz gain, pertsonalki ikasi det bizikidetzan. Azkenean, 9 urtez zortzi pertsona elkarrekin lokalean, momentu hobeak, okerragoak izan dira eta ikasi dugu nola bizi gure artean. Pertsonalki niri handiagoa egin dit Luz de Putas-ek.

Ian Olaizola: Oso hunkitua nago azken egun hau zuekin elkarbanatzeagatik. Duela 10 urte hasi genuen gauza txikitxo bat izan zen, jende asko erakarri genuen eta pena handia eman zidan taldea utzi beharrak, kanpora joan nintzelako bizitzera. Baina, jarraitu dutela ikusteak eta beraiekin batera zikloa amaitu ahal izatea niretzat oso berezia da, oso pozik nago.

Oskar Ruiz de Apodaka (Saxo jolea):

Lehen tipo serio bat nintzen, orain ez. Hau da laburbilduz Luz de Putas.

Zein izan da taldearekin bizi izan duzun gertakari bitxiena?

P.I: Izan ditugu pila bat eta taldeko asko protagonista izanda. Esaterako Britainiara joan ginenean, oso ondo ari ginen, asko jan eta edan genuen eta sekulako pirrileria etorri zitzaidan. Kontzertua genuen eta ez nion bueta ematen eta haizeek ohitura dugunez ari gabeko mikrofonoak eramatera, komunera joan nintzan eta komunitik jo nuen.

D.M: Japonen dantzan hasi ginen, dendentan animaziozko kantak entzutean, Peiok sortutako koreografia batekin eta Japoniarrek mobilarekin grabatzen ziguten.

P.I: Jaso genuen eskutitz anonimo bat esanez, azken boladan ikusten zituela neska mutil taldeak forman zeudela eta jotzen ikusi gintuenean gustoa ematen ziola eta oso polita zela jende normala ikustea eszenatoki gainean eta hori kurioa izan zen.

Nola gustatuko litzaizueke Luz de Putas oroitaraztea jendeak?

O.R.A: Jarana a saco!

D.M: Festarako taldea garena.

Kontzertua zenbateraino luzatuko da?

P.I: Ordu pare bat jotzen eta gero jaiak jarraituko du, guztiz nekatu arte, Whiskeyman-ekin. Pertsona guztiz berezia da eta sekulako festa jartzen du.



GUZTIENTZAKO EKINTZAK: TAILERRAK, JOLASAK, TXANGOAK, ANIMAZIOA...

Zer? Gai bat landuko da egun bakoitzean: bide heziketa, ingurumena, bulling-a, genero berdintasuna. Eskolaz kanpoko ekintzak dira.

Helburuak: Haurren eta gazteen partaidetza sustatzea jolas-heziketazko jardueren bidez Gurutze Gorriaren Gazteen atalaren bidez, beren ingurunean gizarte-

eraldaketaren eragile izateko interesa erakusten duten haur, nerabe eta gazteei begira jolas-heziketazko ibilbide bat eskaintzea

Adinak: 12- 14 urte (Irunen)

Egunak: Hilean bi igandetan.
Ordua: 17:00 - 19:00

Informazio gehiago: Irungo Gurutze Gorriaren Gazteen atala (Euskal Herria Hiribidea, 14 - Irun) Telefonoa: 943 62 11 62 (Imanol) - emaila: ijaurgui@cruzroja.es



FRANTSES IKASTAROAK ZURE LANBIDERAKO. AZKEN PLAZAK !!!!

Zer? Kaslean laneko testuingurura hurbiltzea bultzatuko da, frantsesa ahoz eta/edo idatziz mintzatuz. Aurretik, maila ikusteko proba bat egingo da eta amaieran azterketa bat ere bai, lortutako maila ziurtagiriarena. Nahitaeskoa izango da klasera joatea.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera (09:30 - 13:30)

Nori zuzenduta: Irungo langabentuentzako.

Informazio gehiago: Bidasoa Biziriketako El Espazio bulegoan (Anaka, 27 - Irun) - www.elpazio.com - Tel.: 943 633 160



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

25 PLAZA HUTS EKITEKO ETA IKASTEKO



eginez, taldean ekiteko eta gaitasun pertsonalak lantzeko aukera eskaintzen duen programa da. 25 pertsona aukeratuko dira bigarren fasera pasatzeko eta horietatik 12 ideia onenek programan parte hartuko dute.

Nori zuzenduta? Ekiteko gogotsu dauden 18 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat.

Hasiera: 2016ko abenduaren 14an

Bukaera: 2017ko otsailaren 10ean

Ordutegia: astelehena eta asteazkenean, 17:00etatik - 19:00etara: 30 ordu.

Izena emateko: empresas@bidasoa-activa.com edo 943 63 39 37 telefonoan.

Irungo udaletxeak Irun Ekintzan, Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko itunaren esparruan, "Ideiatik negozio aukerara" ekimena jartzen du martxan Bidasoa bizirik bidez, eta Mondragon Unibertsitatearen eta Mondragon Team Academyren laguntzarekin.

Talde lanaren bidez eta proiektu errealetan lan

PRAKTIKAK GREZIAN DIPLOMATUENTZAT EDO INGENIARI TEKNIKOENTZAT

Zer: Ordaindutako praktikak, arlo hauetan: IKT (informazioaren eta komunikazioaren teknologia) eta administrazioan; administrazio orokorrean, finantza administrazioan, giza baliabideetan, barruko audiotoretzan, legezkoa, teknologiaren informazioan

Noiz: 2017an. Aldia zehaztu gabe dago.

Non: ENISA Sare eta informazioko Segurtasunerako Europako Agentzian.

Tokia: Grezia (Atenas edo Heraklion).

Aldia: 6- 12 hilabete artekoa.

Betekizunak: Diplomatura/Ingeniaritza teknikoa, ingeles maila egokia eta Europa Batasuneko, Norvegiako Islandiako edo Liechtensteineko nazionalitatea.

Eskatzeko epea: 2016ko abenduaren 31ra arte.



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administrazioak, laboralak, kontularitza eta zerbenak
Ibilgailuen eskualdaketa
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitortpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

Abenduak 1

Zer? "Euskara munduan bes-teen ahotan" dokumentalaren emanaldia eta Iñigo Asensio egilearekin solasaldia.

Ordua? 19:30etan.

Non? Irungo Mendizaleak El-karte, Kontrakale, 2-behea.

Prezioa? Doan.



2016 EUSKAL KOSTALDEKO GABONETAKO AZOKA

Euskal Kostaldeko Eguberrietako Azokaren 11. edizioa Ficoban egingo da abenduaren 6tik 8rako zubian. Sek-tore anitzeko azoka da. Hamarnaka erakusketari-ek osatuko dituzte erakustazokaren pabiloi guztiak. Beren produktuak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, gainera, doako jarduerak ere egingo dira familia osorako, goiz eta arratsalde.

Ordutegia: Asteartea-asteazkena: 11:00-21:00 h
Osteguna: 11:00-20:00 h.

Non? Ficoban.

Prezioa? 3€, 12 urterarteko haurrak doan.



Abenduak 1

Zer? Irunabar bertso elkarte-aren euskararen eguneko bertso emanaldia. Bertsoan Egoitz Zelaia, Miren Artetxe eta Alaia Martin egongo dira eta gaiak jartzen Zuhaitz Ola-zabal, Eneko Sanchez eta Oi-natz Mitxelena.

Ordua? 19.30etan

Non? Kabigorri Bidasaldeko Ateneoa. Sargia, 1, atzekal-dea.

Prezioa? Doan.



Abenduak 11

Zer? The Woggles taldearen kontzertua. Ezin hobeto koi-peztatutako makina bat da banda, sendo jotzen duena eta maite dituen soinuak zint-zoki defendatzen dituena: northwest punkeko forma-zioen eragina, soul sutua, kanta instrumental zoroak, abesti dantzagarriak... Duda-rik gabe, gozamen hutsa dira The Woggles, eta gozatzeko garaia da.

Ordua? 20:00etan

Non? Amaia KZ. Pio XII, 4.

Prezioa? Bazkideek: 12 euro; Bazkide ez direnak 18 euro; 5 euro 30 urtetik beherakoent-zat.



Abenduak 2

Zer? Euskararen eguneko mintzodromo gaztea.

Ordua? 10:30etatik 12:00etara.

Non? Mendibil merkatal zen-trua. Almirante Arizmendi kalea, 9.

Prezioa? Doan.



Azaroak 7tik 27ra

Zer? "Dibujos en libertad" erakustaldia.

Ordua? Astelehenetik ostira-lera: 09:00-20:00; Larunbata: 09:00-13:00.

Non? CBA Udal Liburutegian.

Prezioa? Doan.

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

 Pisua salgai Irun Elizatean Azalera 62 m ² , 2 gela, bainu-gela, egongela, sukaldaria, baloi-t, ibaroina, igogailua, balioa eta trasterokoa. Ref: 02131 99,000 €	 Pisua salgai Irun Menka Azalera 57 m ² , 2 gela, 1.500c, bektupela, egongela, sukaldaria, baloi-t, trasterokoa, egurketa eta apartaketa berrak. Ref: 4522 125,000 €	 Pisua salgai Bihobele Azalera 50 m ² , 2 gela, barutela, egongela, sukaldaria, trasterokoa, bektupela, apartaketa, trasterokoa eta igogailua. Ref: 04511 135,000 €
 Pisua salgai Irun Urdanibia Azalera 90 m ² , 3 gela, bainu-gela 1, komun 1, egongela, sukaldaria, 7 baloi-abi, egurketa, trasterokoa eta igogailua. Ref: 04507 200,000 €	 Pisua salgai Irun Oiebertia Azalera 80 m ² , 3 gela, barutela, komun 1, egongela, sukaldaria, igogailua, bektupela, trasterokoa eta igogailua bektupela, trasterokoa eta igogailua. Ref: 04520 250,000 €	 Pisua salgai Irun Kolon Azalera 70 m ² , 2 gela, 2 bainu-gela, egongela, sukaldaria, bektupela, igogailua, trasterokoa eta 4 m ² ko terraza. Ref: 03597 210,000 €
 Etxea salgai Irun Poiana Azalera 320 m ² , 4 gela, 2 bainu-gela, komun 1, egongela, sukaldaria, 2 herria, gar-berraketa, berraketa, sukaldaria eta 10 kolorezko atariak. Ref: 03822 399,000 €	 Lokala salgai Irun Juan Arana Azalera 35 m ² , eta 40 m ² sobarria, komun 1, eskalari eta lokala oso konfortable. Ref: 04523 175,000 €	 Etxea salgai Lesaka XVII mendiko etxea errenovatu. Azalera 100 m ² , 4 gela, 2 bainu-gela, komun 1, terraza, trasterokoa eta trasterokoa, trasterokoa eta igogailua. Ref: 04530 499,000 €

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN

11.
edizioa!



euskal kostaldeko gabonetako azoka

abendua 6 - 8

asteartea 11:00 - 21:00 / asteazkena 11:00 - 21:00 / osteguna 11:00 - 20:00



**KRUZERO BAT
OPARITZEN DUGU!**



**ETA GABONETAKO LOTE
ETA SASKIEN ZOZKETAK
EGUNERO!**



Irudi informatiboak, ez kontratuzkoak / Zozketen arauak: expo.ficoba.org

  #FeriaNavidad2016

expo.ficoba.org



Ficobara, zatoz trenean!


euskotren (Irun-Ficoba geltokia)

Antolatzaile



Avda. Iperralde, 43
20302 Irun-Gipuzkoa
+34 943 86 77 88
www.ficoba.org

Babesleak

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioa Foru
de Gipuzkoa



GRAIN
GIPUZKOA

